OIARTZUNGO UDALA



# AKTA

## UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2025/05/28
**Ordua:** 18:00-ak
**Tokia:** Udaletxeko Areto Nagusian
**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Joana Mendiboure
**Zinegotziak:**

EHBildu
Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Iragorri Iriarte

EAJ-PNV
Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

**Idazkaria:**
Xabier de la Mota Vazquez

**Ezin etorria adierazi dute:**

**AZTERGAIAK:**

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. Hainbat ordainagirien berrikuspena egin eta diru itzulketa onartu zen.
3. Oarsoaldea S.A.-rekin 2025eko Lankidetza Hitzarmena sinatzea onartu zen.
4. 2025. urteko lanpostuen zerrenda eta plantilla onartu ziren.
5. 2026. urteko herriko jaieguna proposatu zen.
6. Musika-eskola zerbitzu publiko berria sortzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zen.
7. Zinegotzi baten liberazioa onartzea bere baimenak amaituta, eta beste batena bertan behera uztea erabaki zen.
8. Oiartzungo Udalaren autobus operadoreak emandako Oiartzungo bidaiarien hiri-garraio publikoko zerbitzuan tarifen integrazioko sistemaren hitzarmena luzatu eta aldatzea. 2025/768 Alkate Dekretuaren berri hartu eta berretsi zen.
9. 2025-KALD-000003 - 03/2025 Kreditu Aldaketa: Gaikuntza : 24.514,50€, berri eman zen.

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

OIARTZUNGO UDALA

10.2025-KALD-000004 Kreditu Aldaketaren onarpena: 40.600,00€, berri eman zen.
11.Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.
12. Ez zen eskaera galderarik egon.

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

**Esan-eginak eta erabakiak**

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2025eko maiatzaren 28an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 16 botorekin (EH Bildu 12, EAJ/PNV 4)

-II-

HAINBAT ORDAINAGIRIEN BERRIKUSPENA EGIN ETA DIRU ITZULKETA

Alkateak azaltzen du lehengo urteko diru kontuak direnez, Udal Osoko batzarretik pasa behar diren gaiak direla. Lehendik Antolaketa eta Kontu Berezien Batzorde Informatzailetik pasa direla hortaz, horiek horrela gaiak azaldu eta bozkara ekiten diote.

**2025ER080004:**

---

Rafael Pikabea 5 Etxabene etxea etxebizitza bakarra izanik bi hondakin tasa ordaintzen zituztenez, egoera zuzentzea eskatu zuen M Carmen Garin Maritxalarrek. Atez-ateko zerbitzuak egoera aztertu eta hiri hondakin solidoak etxez-etxe biltzeagatiko tasa bakarra aplikatzea erabaki zuen.

Erabakia jaso eta aurreko epeetan oker ordaindutakoa itzultzea eskatzen du.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailearen txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

Atez-ateko zerbitzuak esandakoarekin bat eta Udal biztanle erroldan 2013ko maiatzaren 14tik Rafael Pikabea 5 Etxabene etxea etxebizitza bakarra jasotzen dela eta Ondasun Higiezinen katastroan beti izan dela finka bakarra ikusita, preskripzio epea kontutan izanda, oker sortutako hiri hondakin solidoak etxez-etxe biltzeagatiko tasagatik ordaindutakoa itzultzea.

**Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:**

Izena : GARIN,ECHEVERRIA,CECILIO IFZ/PAS: 15139680E
Helb.Fisk.: RAFAEL PIKABEA ETOR. 5, 02 ETXABENE
Hel.ondar.: OIARTZUN

| O Zer Urt Ep Er. | Agiria | Z. | Zerga Konzeptua | Ego. Ep | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 2 2021 01 | 1506 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 55,50 |
| 2 2021 02 | 1507 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 55,50 |
| 2 2022 01 | 1529 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 56,33 |
| 2 2022 02 | 1530 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 56,33 |
| 2 2023 01 | 1538 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 57,17 |
| 2 2023 02 | 1542 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 57,17 |
| 2 2024 01 | 1537 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | 1 | 58,03 |
| 2 2024 02 | 1544 | 0 | ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E | E3 | 58,03 |

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

OIARTZUNGO
UDALA

Izena : GARIN,MARICHALAR,M CARMEN IFZ/PAS: 72438801W
Helb.Fisk.: CALLE DE LA GIRGOLA 23
Hel.ondar.: CALONGE - GIRONA
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa
- ---------------------------------------------------------------------------
2 2025 01 1542 0 ZABORRAK -RAFAEL PIKABEA E 0 56,10

**2025ER070001**:

Aialde kalea 3, 00-003 lokalean kokatutako kontadoreari lotutako uraren ordainagiriak jaso dituzte. Kontadorea Aialde kalea 5 eta 7 helbideetan eraikitako etxebizitzen obrari lotutako ordainagiriak baldin badira, obra bukatu zirenetik ordainagiriak baliogabetzea eskatzen du.

Ur errolden oinarrizko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, Aialde kalea 3, 00-003 lokalean Aialde kalea 5 eta 7 etxebizitzak eraikitzeko obraren aldagelak jarri zituzten. ZALAKAINENE ETXADIA SL-k eman zion kontadoreari alta ur zerbitzuan eta bere izenean sortu dira kontadore honi lotutako ordainagiriak. Behin lokalaren erabilera amaituta, ZALAKAINENE ETXADIA SL-k kontadorearen baja eskaera egin behar zuen. Eskaera 2024/02 epeko ordainagiria jasotzerakoan bideratu du.

Aialde kalea 3, 00-003 lokalaren nagusia ZALACAIN MUGURUZA M CONCEPCION da eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, kontadorea bertan jarraitzen du.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailearen txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

Kontadorea nagusiaren izenean jartzea, ZALAKAINENE ETXADIA SL-ren izenenean sortutako 2024/02 eta 2024/03 epetako ordainagiriak baliogabetzea eta ZALACAIN MUGURUZA M CONCEPCION-en izenean ordezko zuzenak sortzea.

**Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:**
Izena : ZALAKAINENE ETXADIA SL IFZ/PAS: B75220798
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa
- ---------------------------------------------------------------------------
3 2024 02 4614 0 URA-ESTOL-AIALDE KALEA 3- E5 13,18
3 2024 03 4635 0 URA-ESTOL-AIALDE KALEA 3- 1 13,18

**Ordezko ordainagiriak:**
**Zergaduna:** ZALACAIN,MUGURUZA,M CONCEPCION
**2024/02**
Aurreko irakurketa:0m³ Egungo irakurketa:0m³ Kontsumoa 0m³

| | **Finkoa** | **Mugikorra** | | | **Denera zatika** |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **t. mugik** | **konts.** | **denera** | |
| **Ura-est** | 11,98 | 1,29 | 0 | 0,00 | 11,98 |
| **BEZ** | 0,1 | | | | 1,20 |
| **Kanona** | | 0,03 | 0 | 0 | 0,00 |
| | | **Guztira €** | | | **13,18** |

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

OIARTZUNGO UDALA

**2024/03**

Aurreko irakurketa:0m³  Egungo irakurketa:0m³ Kontsumoa 0m³

| | Finkoa | Mugikorra | | | Denera zatika |
|---|---|---|---|---|---|
| | | t. mugik | konts. | denera | |
| **Ura-est** | 11,98 | 1,29 | 0 | 0,00 | 11,98 |
| **BEZ** | 0,1 | | | | 1,20 |
| **Kanona** | | 0,03 | 0 | 0 | 0,00 |
| | | **Guztira €** | | | **13,18** |

**2025ER070012**:

---

Nicolas Urdampilleta Baldak, bere izenean sortutako 2024/02 epeko ura-estolderiaren ordainagiria berrikusteko eskaera egin du gehiegizko kontsumoa jasotzen duelako.

Ur errolden oinarrizko dokumentazioa aztertu ondoren, eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, ondorioztatzen da, Nicolas Urdampilleta Baldari Astigarragako bidea 1, 00-004 lokalagatik dagokion 2024/02 epeko uraren ordainagirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaiola irakurketa okerra jaso delako. Udalak kontadorea aldatu zuen eta kontadore zaharraren eta berriaren arteko irakurketak emandako kontsumoarekin sortu zuen 2024/02 epeko ordainagiria.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailearen txostenaren baitan eta  Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

Nicolas Urdampilleta Baldari Astigarragako bidea 1, 00-004 lokalagatik dagokion 2024/02 epeko uraren ordainagiria baliogabetu (ordaindua balego itzultzea) eta ordezko ordainagiria sortzea, kontadore berriak emandako irakurketa zuzenak jasoko dituena. Horrela, aurreko irakurketa 312m³, azken irakurketa 312m³ eta 0m³tako kontsumoarekin sortuko da ordezko 2024/02 epeko ordainagiria.

**Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:**

Izena : URDAMPILLETA,BALDA,NICOLAS                    IFZ/PAS:  15938378E

| O Zer Urt Ep Er. | Agiria | Z. | Zerga Konzeptua | Ego. Ep | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 3 2024 02 | 4392 | 0 | URA-ESTOL-ASTIGARRAGAKO BI | 1 | 552,87 |

**Ordezko ordainagiria 2024/02**

Aurreko irakurketa:312 m³        Egungo irakurketa:312 m³        Kontsumoa 0m³

| | Finkoa | Mugikorra | | | Denera zatika |
|---|---|---|---|---|---|
| | | t. mugik | konts. | denera | |
| **Ura-est** | 70,15 | 3,20 | 0 | 0,00 | 70,15 |
| **BEZ** | 0,1 | | | | 7,02 |
| **Kanona** | | 0,03 | 0 | 0,00 | 0,00 |
| | | **Guztira €** | | | **77,17** |

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

-III-

OARSOALDEA S.A.-REKIN 2025EKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Alkateak azaltzen du, Oarsoaldea, S.A.-ko administrazio kontseiluak urtero onartzen duela urte bakoitzari dagokion Gestio Plana eta Gestio Planaren kostua. Oarsoaldea osatzen duten 4 udalen artean banatzen da kostu hori, udal bakoitzak programa bakoitzean duen partaidetza kontuan hartuz.

Udalek egiten dituzten ekarpenak subentzioak bihurtu ahal izateko, Oarsoaldea, S.A. enpresa eta Oarsoaldea osatzen duten 4 udalen artean lankidetza-hitzarmenak sinatzea ezinbestekoa da, bertan jasoko direlarik burutuko diren programak eta udalaren ekarpen osoa.

Horrenbestez, 2025ean Oarsoaldeari hitzarmen eta enkargu guztiak direla eta egingo zaien gehienezko ordainketa **460.101,33** € izango litzateke

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren eta Kontuhartzailearen txostenaren baitan eta  Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

**Bakarra:** Oarsoaldea, S.A.-k aurkeztutako Lankidetza hitzarmena sinatzea eta enkargua eta hitzarmen espezifikoa abian jartzea.

Hitzarmena: I. ERANSKINA

-IV-

2025. URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA

Alkatearen hitzetan, Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 45.artikuluak arautzen du lanpostuen zerrenda eta 6.zenbakiak jasotzen du nolanahi ere, lanpostuen zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko direla lanpostuak.

Idazkariak hitza hartzen du, espedientearen jarraipena azaltzen du, esanez, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitalpena egingo dela, hamabost egunez, eta inork alegaziorik aurkeztu ezean, onartutzat joko dela hartutako erabakia.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta  Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**Lehena**.- 2025. urteko lanpostuen zerrenda onartzea eta 2024. urtekoarekiko honako aldaketak onartzea:
1.- Ordainsariaren igoeraren eraginez, eguneratu dira berariazko osagarriaren zenbatekoak lanpostu guztietan.

2.- Lanpostu guztien hizkuntza eskakizuna Euskal Sektore Publikoaren euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretura egokitzea.

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

3.- Idazkaritza administrraria lanpostuari dagozkion hiru dotazio ezabatu dira, eta Herritarren Arreta Guneko (HAG) hiru informazio eta tramitazio agente lanpostu berri sortu dira.

4.- HAG koordinatzailea lanpostu berria sortu da.

5.- Komunikazio, Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako teknikaria lanpostua ezabatu da eta Berrikuntzako teknikaria lanpostua sortu da, eta lanpostu honi dagokion plaza administrazio orokorreko eskalakoa zein administrazio bereziko eskalako plaza bihurtzea.

6.- Administrazio bereziko erdi-mailako teknikari bi lanpostu berria sortu dira.

7.- Baso-peoien lanpostuaren izena baso-ofizialetara aldatzea, C2 azpisailkapen taldera egokitzeko.

8.- Honako lanpostuen balorazioa egin da eta destino osagarri eta berariazko osagarria zenbatekoak egokitu dira, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

- ✓ Idazkaria (1)
- ✓ Kontuhartzailea (1)
- ✓ Diruzaina (1)
- ✓ Berdintasunerako teknikaria (1)
- ✓ Gazteria eta Kirol teknikaria (1)
- ✓ Hizkuntza normalizaziorako teknikaria (1)
- ✓ Kulturako arduraduna (1)
- ✓ Liburuzaina (1)
- ✓ Gizarte zerbitzuen arduraduna (1)
- ✓ Gizarte langileak (3)
- ✓ Gizarte langilea-Etxez-etxeko zerbitzuaren koordinatzailea (1)
- ✓ Etxez etxeko langileak (13)
- ✓ Mendizaina (1)
- ✓ Baso-ofizialak (2)
- ✓ Balio anitzetarako ofizialak (10)

2025. urteko plantillaren hasierako onespena onartzea eta 2024. urtekoarekin alderatuta edukiko dituen aldaketak honako hauek dira

- Lau plaza sortzea, erdi mailako 2 teknikari, A2 azpitaldekoak eta administrazio bereziko eskalakoak, azpieskala teknikoa eta erdi mailako teknikarien motakoak, eta beste bi C1 azpitaldekoak eta administrazio orokorreko eskalakoak, administrarien azpieskalakoak.

**Bigarrena.-** 2025. urteko plantillaren hasierako onespena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta iragarkia argitaratzen denetik hamabost egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, epe horretan interesatuek aztertu eta beren erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, espedientea jendaurrean dagoen bitartean, behin betirako onartutzat joko da.

**Hirugarrena.-** 2025. urteko lanpostuen zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

-V-

Alkateak azaltzen du, 2025eko apirilean, Autonomia Erkidegoko langileen 2026. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartu zela eta Udal bakoitzak bere herriko jaiegun ofizialari buruzko proposamena

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

egin eta dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko diola hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Idazkariak azpimarratzen du, agindua epe barruan betetze aldera, Udal Osoko Batzarrak Oiartzungo jai eguna proposatu behar diola Lan eta Justizia Saileko Gipuzkoako Lurralde-ordezkariari eta beraiek izango direla onartzen dutenak

Guzti hau kontutan hartuta, Giza baliabideetako teknikariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udal batzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

**Lehena**.- Abuztuaren 3a (astelehena), Done Eztebe eguna, proposatzea 2026. urteko herriko jaiegun ofizialtzat.

**Bigarrena**.- Laneko eta Gizarte Segurantzako saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkariari proposamen honen berri ematea.

-VI-

MUSIKA-ESKOLA ZERBITZU PUBLIKO BERRIA SORTZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA

Alkateak hitza ematen dio Aiako Harria Gaztelumendi zinegotziari. Honek dio, orain arte Oiartzunen musika eskola pribatu bat egon dela, Ibardin musika eskola, Hezkuntza eta Oiartzungo udalaren dirulaguntzekin hornituta. Musika eskolak adierazi du 2025-2026 izango dela azken ikasturtea, ondoren itxi egingo dutela eta Soinueneak ere esan du irakaskuntza alde batera utzi eta museoarekin bakarrik jarraitzeko asmoa dutela, beraz, egoera ikusirik udalak musika eskola zerbitzu publiko berria irekitzeko beharra ikusten du.

Prozesua martxan jarrita dagoela dio, dagoeneko Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan dago udala, jarraitu beharreko prozedura administratiboa ezagutze aldera, eta horretaz gain, herritarrekin prozesu partehartzaile bat egin da, herritarren inplikazioa azpimarratzen du zinegotziak.

Idazkariak hartzen du hitza. Espedientearen konplexutasuna aipatzen du, bereziki udalak zuzenean eman ez duen zerbitzua delako, eta horregatik berria den espedientea da. Bestalde, konpetentziei dagokionez, ez dira udalaren konpetentziak, hezkuntza ez arautu bezala Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta udalek hitzarmen bidez kudeatzen dute.

Dena den, azpimarratzen du prozedurak dionaren arabera, txostenak eskatu behar direla, Eusko Jaurlaritzari duplizidadeak ekidite aldera eta ogasunari finantza iraunkortasuna bermatzen dela egiaztatzeko. Beraz, honekin espedienteari hasiera ematen zaio, espreski komisio bat izendatzen da beharrezkoak diren txostenak sortzeko, proiektu pedagojikoa egiteko eta gainerako zerbitzua osatzeko beharrezkoak diren memoria juridiko eta ekonomikoak egiteko.

Beharrezkoak diren txosten guztiak jaso ondoren, gaia berriz Udal Osoko Batzarretik pasako da eta erakusketa publikoan jarriko da, ondoren behin betikoz onartuko da eta dagokion baimen administratiboa eskatuko da.

Janire Mitxelena andereak hitza hartzen du, EAJ/PNV partiduko bozeramaile gisa. Musika eskola publikoa sortzearen proiektuaren aldeko posizio erakutsi nahi dute. Ibardin musika eskola ixteak, herrian hutsunea sortuko duela dio, musika bera gure kulturaren parte izanik galera handia izango

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

litzatekeela herritarrentzat musika eskola ez edukitzea, horregatik ezinbestekoa iruditzen zaie, Oiartzunen musika hezkuntza publiko, kalitatezkoa eta eskuragarria izatea. Beraien ustetan ezinbestekoa da herritarrek proiektuan parte hartzea eta horregatik parte hartze prozesua aldarrikatzen dute. Garrantzitsua da udalak herritarrekin koordinatzea musika hezkuntza sendo eta komunitatearen beharretara egokitzen dena. Azkenik, ezin da ahaztu euskal kultura eta euskara sustatzea direla oinarrizko helburu ondorioz, ez dadila izan musika bakarrik ikasteko gunea, baizik eta gure kultura eta hizkuntza lantzen den gunea. Proiektuaren gardentasun eta zuzentasunean konfiantza dutela adierazi nahi dute eta herritaren onurarako izango den proiektua dela diote.

Aiako Harria Gaztelumendik erantzuten du esanez, hasieratik egon direla bai Ibardin musika eskola bai Soinuenearekin elkarlanean, proiektua ahalik eta sendoen izateko, gainera transizio guzian harremanetan egoteko asmoa dutela dio. Horretaz gain, argi dute nortasun handiko musika eskola bat eraikitzea dutela helburu, non bertan euskal kultura, herrikoa eta euskara izango diren ardatz nagusiak eta horretarako hasieratik bultzatu da herritarren parte hartzea eta kontutan eduki dira jasotako iradokizun guziak.

Azkenik, Janire Lekuonak , galdetzen du ea Elizalde ikastola eta Haurtzaro eskolarekin badagoen proiektu honen inguruko hartu-emanik, ea beraiek proiektuarekiko loturik eduki dezaketen.

Aiako Harria Gaztelumendik erantzuten dio. Zerbitzua herritar guztientzako da, bai adin txikikoentzat, bai helduentzat, helburua hezkuntza musikala denei iristea dela eta Oiartzungo musika eskola erreferente bilakatu dadila.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

**Lehenengoa**.- Osoko Bilkurak **Oiartzungo udalerrian musika-eskolaren zerbitzu publiko berria sustatu nahi duela adieraztea**, eta **zerbitzu hori emateko espedientea hastea**, espedientean ageri den idazkariaren aurretiazko txostenean adierazitako prozedurarekin bat etorriz, nabarmenduz arlo horretan eskumena duen administrazioaren nahitaezko txosten lotesleak lortzeko beharra, bikoiztasunik ez dagoela adieraziz, bai eta eskumen berrien finantza-iraunkortasunari buruzko finantza-tutoretza esleituta duen administrazioarena ere.

**Bigarrena**.- Oiartzungo musika-eskolako zerbitzu publikoaren memoria/proiektua egiteko azterketa-batzordeko kide izendatzea honako hauek:

- Lehendakaria: Joana Mendiboure, Alkatea.
- Kideak:
    - Garazi Urdampilleta Astibia, Alkateordea.
    - Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi, zinegotzia.
    - Xabier de la Mota Vazquez, Idazkari orokorra.
    - Maria Jesus Otaegui Irureta, Kontu-hartzailea.
    - Oihane Mallagaray Revilla, Giza-baliabideetako arduraduna.
    - Aroia Altuna Ibarguren, Kontratazio-Teknikaria.
    - Joxan Eizmendi Garate, Kultura-Teknikaria.
    - Maitane Iribar Aizpurua, Berdintasun-Teknikaria.
    - Amagoia Marcos Saizar, Udal Arkitekto-Teknikoa
- Idazkari moduan Xabier de la Mota Vazquez, idazkari orokorra, arituko da.

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

**Hirugarrena**.- Azterketa batzordeari Memoria/Proiektuaren idazketa egin dezala agintzea, gutxieneko eduki honekin:

a. Zerbitzuaren alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioak, eta araubide juridikoa, kudeaketa-modua (legean aurreikusitakoen artean) eta jarduera emateari utzi behar zaion kasuen zehaztapena.
b. Eman nahi den ekintza publikoaren, jardueraren edo zerbitzuaren deskribapena, zer lurralderi eragingo dion, herritarren alde sortuko diren prestazioak, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, bai eta horiek gauzatzeko epeak ere.
c. Ekintza publikoa gaiaren arabera eskumena duen administrazio publikoak garatutako beste batekin bat ez datorrela ondorioztatu ahal izateko alderdien justifikazioa.
d. Memoria ekonomikoa, zerbitzuaren prezioen proiektua jasotzen duena, udalerriak eskumena egikaritzearen finantza-jasangarritasuna baloratu ahal izateko behar besteko informazioarekin, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren betekizunen arabera.
e. Ahal den informazio eta dokumentazio guztia biltzea, ondoren Hezkuntza Sailak musika-eskola irekitzeko eta jardunean jartzeko administrazio-baimena lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren 18. artikuluan zehaztutakoaren arabera. Besteak beste, honako hauek bildu beharko lirateke:
    i. Hezkuntza-proiektua.
    ii. Beharrezko irakasleen zerrenda.
    iii. Beharrezko material didaktikoaren eta irakaskuntza-materialaren zerrenda.
    iv. Espazioei, higiezinei eta instalazioei buruzko dokumentazioa, lege-testu beraren 19. artikuluan deskribatutakoaren arabera (eskriturak, planoak, obra-proiektuak, etab.).
f. Toki-erakundeak legez eman behar dituen gutxieneko zerbitzuak ematea bermatuta duelaren justifikazioa.
g. Eskumena beste administrazio baten laguntza tekniko edo ekonomikoarekin egikaritu beharko den, eta, hala badagokio, zenbatekoa.

-VII-

ZINEGOTZI BATEN LIBERAZIOA ONARTZEA BERE BAIMENAK AMAITUTA ETA BESTE BATENA BERTAN BEHERA UZTEA

Alkateak azaltzen du, urrian lehen alkateordeak jakinarazi zuela, bere amatasuna zela eta, dagozkion baimenak hartuko zituela. Horren ondorioz, 2024ko irailaren 25eko osoko bilkurak adostu zuen baimen horiek zirauten bitartean, alkateordearen dedikazio esklusiboa bertan behera uztea eta Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi zinegotziari lehen alkateordeak zuen dedikazioa eta ordainsariak onartzea.

2025eko ekainaren 23an, baina, baimen horiek amaitu egingo dira, eta hortaz Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi zinegotziaren liberazioa bertan behera utzi behar dela, lehen alkateordea den Garazi Urdampilleta Astibiari liberazioa berrezartzeko.

Azkenik eskerrak ematen zaizkio emandako zerbitzuengatik.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta  Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak hartu du honako:

**AKORDIOA**

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

OIARTZUNGO
UDALA

**Lehenengoa**.- Lehen alkateordearen amatasun egoerari lotutako baimen eta ezintasun egoerak amaituta, Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi zinegotziaren dedikazio araubide esklusiboa bertan behera uztea 2025eko ekainaren 22ko datarekin.

**Bigarrena**.-2025eko ekainaren 23ko datarekin, **Garazi Urdampilleta Astibia zinegotziari dedikazio araubide esklusiboa berriro esleitzea**, honako ordainsariarekin:

| HILEKO ORDAINSARIA | URTEKO ORDAINSARIA |
|---|---|
| 3.100,77 € | 43.410,78 € |

Ordainsari hori urtero eguneratuko da, enplegatu publikoen ordainsariak eguneratzen diren moduan. Aipatutako zenbatekoan ez dira sartzen hiru urtekoen zenbatekoak.

Beren eginkizunak dedikazio osoan betetzen dituzten karguek ezin izango dute inolako dietarik jaso Udalaren edo haren administrazio instituzionalaren organoetara joateagatik.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta udal webgunean argitaratzea.

| | **Bozka kopurua** | **Udal taldea/zinegotzia** |
|---|---|---|
| **Alde** | 15 | EHBildu, EAJ/PNV |
| **Aurka** | | |
| **Abstentzioa** | 1 | Aiako Harria Gaztelumendi |

-VIII-

OIARTZUNGO UDALAREN AUTOBUS OPERADOREAK EMANDAKO OIARTZUNGO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUEN TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMAREN HITZARMENA LUZATU ETA ALDATZEA. 2025/768 ALKATE DEKRETUAREN BERRI HARTU ETA, HALA BADAGOKIO, BERRESTEA.

Alkateak azaltzen du, 2021eko apirilaren 15ean Oiartzungo Udalak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publikoko zerbitzuan tarifaren integrazioko sistemaren hitzarmena berritu zutela.

Oiartzungo bidaiarien hiri-garraio publikoaren zerbitzua operadore berri batek eman duela, BENGOETXEA AUTOBUSAK SA subrogatu egin da aurreko sinatzaileak 2021eko apirilaren 15ean formalizatutako hitzarmenaren esparruan bere gain hartutako eskubide eta betebehar guztietan, eta Autobuses Cuadra SAri egindako aipamen guztiak BENGOETXEA AUTOBUSAK SAri egin zaizkiola ulertuko da. Hitzarmenaren gainerako baldintzak ez dira aldatu. Hitzarmena lau urte gehiagoz luzatzea, hau da, 2029ko apirilak 16 arte.

Hasierako lau urteak igaro ondoren, egokitzat jotzen dela hitzarmena luzatzea.

Sinadura hori gauzatzeko premia zela-eta, erabaki hori apirilaren 24ko 2025/768 Alkate-Dekretuz onartu zela. Dena den, iraupen luzerako hitzarmena denez, Udal Osoko Batzak dekretua berresteko beharra ikusten zenez, Udal osoko batzarrak aho batez, hartu du honako :

**AKORDIOA**

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

**Bakarra**.- Apirilaren 24ko 2025/768 Alkate-Dekretua, 2021eko apirilaren 15an Oiartzungo Udalak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publikoko zerbitzuan tarifaren integrazioko sistemaren sinatutako hitzarmenaren luzapena onartzen duena, bai-eta hori sinatzeko egindako delegazioa, berrestea.

-IX-

2025-KALD-000003 - 03/2025 KREDITU ALDAKETA: GAIKUNTZA

Idazkariak azaltzen du, Antolaketa eta Kontu berezien batzordetik pasa ondoren, Udal Osoko Batzarrean berri eman behar den gaia dela eta berri ematen da.

-X-

2025-KALD-000004 - KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Idazkariak azaltzen du, Antolaketa eta Kontu berezien batzordetik pasa ondoren, Udal Osoko Batzarrean berri eman behar den gaia dela eta berri ematen da.

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

OIARTZUNGO UDALA

-XI-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

- Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:
2025eko apirilaren 28tik maiatzaren 23ra arte.
Zk. 2025/782tik 2025/949ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:
Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2025eko maiatzaren 13an eta maiatzaren 27an, hain zuzen ere.

- Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko maiatza:

| | |
|---|---|
| Loreak- eskelak | 417,50 |
| Bazkariak, luntxak, | 42,70 |
| Bidaiak | 168,17 |
| **Guztira** | **628,37** |

1. ESKARI-GALDERAK

Ez dago eskaera galderarik.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:20ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

OIARTZUNGO UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria

OIARTZUNGO UDALA

Sin.: Xabier de la Mota

ESKU1f103ae7-b08b-4e16-b475-3254c5879a3d

**OIARTZUNGO UDALAREN ETA OARSOALDEA S.A.REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA**

Oiartzunen, 2025ko ekainaren 5ean.

**BILDUTA**

